



Iruñetik dator The Glitter Souls, Roberto C. Meyerrek zuzentzen duen boskotea. Orain dela lau urte inor gutxik entzun zuen 10 hazbeteko biniloa grabatu ondoren, *As cool as damned* CD luzearekin azaldu berri zaizkigu iruindarrak. Countrya, blues heterodoxoa eta oinarri klasikoko rocka erromantizismoz eta dekadentziaz janzten ditu The Glitter Soulsekin.

mikel lizarraide

1993an eman zituen lehenengo pausoak The Glitter Soulsekin. Ordura arte, Roberto C. Meyerrek beste talde batzuetan jotzen zuen bateria, baina *brillantina ari-mak* sortu zituen arte, ez zuen gustatzen zitzaien musika inongo taldetan islatzerik izan. Han, ordea, bai: «Gure lehenengo lana estiloa zehaztea izan zen. Azken batean, era guztietako eraginak jasotzen genituen: glam rocka, 60ko hamarkadako musika, jazz pixka bat, countrya... Nahiz eta hasieratik jakin zer egin nahi genuen, pare bat urte behar izan genuen estiloa zehazteko». Hasiera hartan, Robertoz gain, Jaime (gitarra), Alvaro (baxua) eta Javik (bateria) osatzen zuten taldea, baina gaur egun lehenengo biek baino ez dute segitzen. Haiekin batera, German baxu jolea (Jugos Lixiviados taldekoa izandakoa) Fernando bateria jolea (Supermirafioris taldekoa izandakoa) eta Aitor teklatu jolea (Desoreka taldekoa izandakoa) aritzen dira orain. «Fernandok gitarra jotzen zuen Supermirafiorisen, eta Aitor ere Desorekan gitarra jotzetik dator. Niri ez zaizkit bakarrik erritmoa jarraitzen duten bateriak gustatzen; beste zerbait izan behar dute. Eta Fernandok gitarra jotzen duenez, badu hori; abestien zentzu musikala oso garbi du», dio Robertok.

Roberto 80ko hamarkadan hazi zen musikalki, eta garai hartako tecno-popa gustatzen zitzaiola gogoratzen du argi eta garbi: «Soft Cell, DAF, Duran Duran... Gaur egun ere, Soft Cell izugarritzko taldea iruditzen zait, eta Marc Almond handienetakoa da. Horren ondoren, ildo ilu-

The Glitter Souls



europarra ere izan. Nahita ere, ezin naiz beltza izan (barrez), baina musika eta giro aldetik, asko interesatzen zait hango giroa. Faulknerren eleberrien giroa gustatzen zait, eta hori islatzen saiatzen gara. Baina, bestalde, ez gara talde retro bat. Giro hori interesatzen zait, baina 2000. urtera eta Europa para egokitua». Nahitazkoa da Nick Cavez hitz egitea The Glitter Souls aipatzean. Izan ere, Robertoren ahotsak australiarrena ekartzen du gogoraz baita unetan, eta musikan ere loturak nahiko nabarmenak dira: «Bai, asko interesatu izan zait betidanik, eta, gainera, beste musika batzuetara haren bitartez iritsi naiz. Hala ere, Nick Caven eraginaz aparte, badugu beste musikari batzuen eragina ere: Einstürzende Neubauten, Rowland S. Howard, Hugo Race, Morricone, Serge Gainsbourg...». Iruñearrak izanik, Los Bichosekin ere alderatu dituzte behin baino gehiagotan. Robertorentzat ohore bat da hori. Josetxo Ezponda mires ten baitu; baina haren iritziz, konparazio errazegia ere bada: «Biak Iruñekoak ez bagina, ez girtuzten horrenbeste alderatuko. Talde berberena eragina dugu, baina, nire ustez, gure aldean, Josetxok alde rockeroagoa du. Guk alde dekadentetik jotzen dugu, Leonard Cohen eta halakoetatik, eta Josetxo zuzenagoa da».

Countryaren berreskurapen garaietan egonik, badira Robertoren interesa pizten duten hainbat talde berri: «Batez ere Calexico gustatzen zait. Western-etako giroa oso ondo islatzen dute; eta Morricone eta Lee Hazlewooden espirituak ezin hobeto uzartzen dituzte. Zineman Sam Peckinpahen lortzen zuena lortzen dute musikan».

Arima erromantikoak

nean sartu nintzen, eta, azkar, country klasikora pasatu nintzen; Hank Williams, Johnny Cash eta halakoetara. Nick Cave eta halako abeslarien bitartez iritsi nintzen haiengana»

Hard on hearts 10 hazbeteko biniloarekin estreinatu zen taldea. Maketa bat grabatzeko asmoarekin sartu ziren estudio- ra, eta disko batekin irten: «Kantu haiei irteera bat eman behar genien, eta grabatu egin genituen. Nahiko ondo gelditu

zirenez, zerbait berezia egitea erabaki genuen; eta ez zegoen 10 hazbeteko bat egitea baino gauza hoberik. Biniloaren fetitxea da 10 hazbetea, eta, agian, horregatik ez zuen funtzionatu». Baliabide eskasekin grabatu zuten, baina The Glitter Soulsen izaera islatzen duela diosku Robertok: «Musika aldetik, lan haren eta azkenengoaren artean ez dago ezberdintasun handirik. Hori bai, kasualitate hutsez grabatu zen, eta ez

dakit Glitter Soulsen lehenengo diskoa dela esango nuenik».

As cool as damned (Dorre Diskak) lan berriak, ordea, bete-betean erakusten ditu Iruñeko boskotearen izaera eta nortasuna. Erromantikoa eta iluna era berean, country eta blues heterodoxotik edaten du, rockari uko egin gabe. Robertok dioskunez, EEBetako hegoaldean ditu oinarriak The Glitter Soulsen musikak, «nahiz eta neurri batean oso

osatu dute; forma klasikoetatik edan arren, 2000. urtean kokatu behar dugun lana».

Nick Caven aztarnak erraz antzeman daitezke zenbait unetan (*Christian sand* ilunean, *Under the vault* kaotikoan, *An old western* talde hipnotikoan), baina *As cool as damned*-ek hori baino gehiago erakusten du. Bala- da ederrak ditu (*Stella Maria*, *Mary Blake*), Los Bichosen ukitu latza berreskuratzen du (*If you are my friend*), oso triste jartzen da (*As cool as damned*, Hank Williamsi eskainia), alde kaotikoa erakusten du (*Honky tonk death*, *Holy dust*), Hugo Raceren blues zingiratsuetan murgiltzen da (*Fallen friend*) eta countrya besarkatzen du (*Anita's gone to town*). Eskura ezazu; ez zaizu damutuko.

The Glitter Souls

As cool as damned ■ Dorre diskak

Hard on hearts 10 hazbeteko diskoak ez zuen aterabide handirik izan, eta beraz, *As cool as damned* hau The Glitter Soulsen aurkezpen diskografikoa dela esan dezakegu. Aurkezpen bikaina dela esan behar, gainera. Roberto C. Meyerrek eta bere taldekideek soinu egokia lortu dute oraingo honetan, eta beren obsesio guztiak diskora eraman ahal izan dituzte. Aitor teklatu jolearen, neska ahotsen koroen eta hari konponketa xume baina erabakigarrien laguntzarekin, iluntasunez eta erromantizismoz beteriko lana

